

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Zerga ordenantzak behin betiko onartzea

Jendaurreko aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 49. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorriz, automatikoki behin betiko bihurtzen da udalbatzaren 2017ko ekainaren 29ko erabakia, hasierako onarpena eman ziena hainbat udal ordenantzari. Ordenantza horien testu osoa argitaratzen da, denak egon daitezen jakinaren gainean eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatzen duena betetzeko.

Udalerriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Uztailaren 19ko Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, ezartzen duenarekin bat etorriz, Udalak tasak ezartzen eta eskatzen ditu hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udalerriko bide publikoetako lurrazaleko, lurpeko edo lurraren gaineko aireko espazioaren erabilera pribatiboagatik eta aprobetxamendu bereziagatik.

Hori dela eta, honako hauek dira hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresak:

a) Energia elektrikoa, ura edo gasa hornitzen duten enpresak.

b) Jendearentzako telekomunikazioak eskaintzen dituzten enpresak, telekomunikazio sare publikoen zati bat edo osorik erabiliz, eta udal bide publikoen lurrazaleko, lurpeko edo lurraren gaineko aireko espazioa modu pribatiboan erabiltzen dutenak edo horien aprobetxamendu berezia egiten dutenak, sare edo instalazioen titularrak gorabehera.

c) Hornidura zerbitzua eskaintzen duen beste edozein enpresa, baldin eta zerbitzua emateko erabiltzen dituzten hodiekin, kableekin eta gainerakoekin udalerriko lurrazala, lurpea edo airea okupatzen badute.

Artikulu honetan ezartzen denaren ondorioetarako, zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresen artean zerbitzu horiek banatzen eta merkaturatzen dituztenak ere sartuko dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerriko osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Hau da zerga gaia: udalerriko bide publikoetako lurrazala, lurpea edo lurraren gaineko aireko espazioa modu pribatiboan erabiltzea edo horien aprobetxamendu berezia egitea hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen alde, baldin eta hornidura zerbitzua interes orokorrekoa bada edo auzokide guztiei edo haietako askori eragiten badie.

Kuantifikazio araubide hau aurreko artikuluan aipatzen diren enpresei aplikatuko zaie hornidurarako erabiltzen dituzten sareen titularrak izanez gero, eta titularrak ez badira ere bai, baldin eta sareak erabiltzeko, sare horietara sartzeko edo sareen arteko lotura egiteko eskubidea badute.

Tasa kalkulatzeko araubide berezi hau ez zaie aplikatuko telefono mugikorraren zerbitzuei.

Tasa hau bateragarria da toki erakundeen eskumeneko zerbitzuak edo jarduerak egitegatik ezartzen diren beste tasa batzuekin, baldin eta, 41/1989 Foru Arauak 32.1 b) artikuluan ezartzen duenaren arabera, hornidura zerbitzua ustiatzen duen enpresa zerbitzu edo jardueraren subjektu pasiboa bada. Nolanahi ere, tasa hau ordaintzen dutenak ez dute edukiko udalerriko bide publikoetako lurzorua, lurpea edo lurraren gaineko aireko espazioa modu pribatiboan erabiltzeagatik edo horien aprobetxamendu bereziagatik tasarik ordaindu beharrik.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorrak 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, udalerriko jabari publikoa modu berezian gozatzen, erabiltzen edo aprobetxatzen dutenak beren onurarako.

Ibilgailuak edo gurdiak espaloietan zehar sartzeko erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia dela eta ordaindu beharreko tasa eta halako sarbideak eraiki, mantendu, aldatu edo kentzeagatik ordaindu beharreko tasa direla eta, zergadunaren ordezkioak izango dira ibilgailuak sartzen diren finken eta lokalen jabeak; ordezko horiek onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete kuotak, bidezko kasuetan.

Administrazio publikoek, autonomia erkidegoek eta toki erakundeek ez dute tasarik ordaindu behariko udalerriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik ez aprobetxamendu bereziagatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikazio zerbitzu publikoei atxikitako aprobetxamenduak edo herritarren segurtasunaren edo defentsa nazionalaren zuzeneko interesen aprobetxamenduak badira.

5. artikulua

Lizentzien titularrek ordaindu behariko dituzte tasak edo, bestela, aprobetxamenduaren onura lortzen dutenek.

IV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

6. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorretan ezartzen denaren arabera emango dira.

V. Zerga oinarria

7. artikulua

Tasaren zerga oinarria hornidura zerbitzua ematen duen enpresak urtean fakturazioaren bidez udalerrian lortzen dituen sarrera gordinen zenbatekoa izango da.

Sarrera gordinak honako hauek izango dira: udalerrian egindako zerbitzuen kontraprestazio gisa entitateak lortutako sarrerak, berari egotzi ahal zaizkionak.

Honako hauek ez dira sartuko sarrera gordinetan: egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak, eta hirugarrenen kontura kobratzen diren partidak eta kopuruak, hornidura zerbitzua egiten duen enpresaren beraren sarrerak ez direnak.

Gainera, honako hauek ere ez dira sartuko fakturazioko sarrera gordinetan: Ekonomia Ministerioaren Argindarra Ekoizteko Instalazioen Administrazio Erregistroko lehen eta bigarren ata-lean inskribatutako instalazioetan erabiltzen diren hornidura zerbitzuengatik (energia sortzeko lehengaiak, araubide berezi honetako tributazioa aplikatzen zaiona) jasotzen diren kopuruak.

Hornidura egiteko besteren sareak erabiltzen dituzten enpresek fakturazioko sarrera gordinetatik kendu behar dituzte beste enpresa batzuen sareak erabiltzeagatik ordaintzen dituzten kopuruak. Sareen titularrak diren enpresek beren fakturazioko sarrera gordinetan sartu beharko dituzte kontzeptu horrengatik jasotako zenbatekoak.

Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorrak 108. artikuluan eta Zerga Ikuskatzailetzaren Arautegiak 37. artikuluan xedatzen dutenarekin bat etorriz, sareen titularrak diren enpresek eskatzen dien informazio guztia eman beharko diote Udalari beste enpresa batzuek beren sareak erabiltzeagatik jasotako sarrerez.

VI. Kuota

8. artikulua

Zerga kuota udalerrian urtean egindako fakturazioko sarrera gordinen ehuneko 2 izango da.

Erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren eraginez udalerriko jabari publikoa suntsitzen edo hondatzen bada, onuradunak kalteak konpontzeko gastu guztiak ordaindu beharko ditu, bidezko tasaz gainera, eta horren zenbatekoa alde zurretik jarri beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte ordaina jasoko du: suntsitutako ondasunen edo hondatutako ondasunei egindako kalteen zenbatekoa.

Udalak ezin izango ditu barkatu idatz zati honetan aipatzen diren kalte ordainak eta itzuli beharreko kopuruak, ez osorik, ez zati bat.

VII. Sortzapena eta zergaldia

9. artikulua

Udalerriko jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa une hauetan sortuko da: hornidura zerbitzua egiten duen enpresa bat udalerriko lurzorua, lurpea edo lurraren gaineko airea modu pribatiboan erabiltzen edo horren aprobetxamendu berezian hasten denean. Tasaren zenbatekoa, osoa edo zati bat, alde zurretik jartzeko eska daiteke, jarduera edo espedientea abiarazten duen eskaera aurkezten denean; jarduera ez da hasiko, edo espedientearen izapideak ez dira egingo, harik eta zenbatekoa ordaindu arte.

Tasa, beraren izaera materiala dela eta, aldian-aldian sortu behar bada, urtarrilaren 1ean sortuko da urtero, eta zergaldia urte naturala izango da. Salbuespenak: erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia hasten edo amaitzen denean, zergaldia horretara egokituko da eta kuota hein berean hainbanatuko da.

Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabari publikoaren erabilerarako edo aprobetxamendurako eskubidea ematen edo betetzen ez bada, bidezko kopurua itzuli beharko da.

VIII. Likidazioa eta dirua sartzea

10. artikulua

Hornidura zerbitzuren bat ustiatzen duten enpresek hiruhileko bakoitzeko lehen hamabost egunetan aurkeztu behar dute aurreko hiruhilekoko sarrera gordin guztien aitortpena udal bulegoetan. Aitorpen horrekin batera udalerrian fakturatutakoaren frogagiriak aurkeztu behar dituzte, eta udal administrazioak eskatzen dituen gainerako agiri guztiak ere bai.

Udalak kontzeptu bakoitzeko likidazioa egingo du; likidatutako kopurua esku dirutan ordaindu beharko da.

Artikulu honetan eta aurrekoan ezartzen diren kudeaketa arauak osagarriak izango dira Udalaren eta hornidura zerbitzua ustiatzen duen enpresaren artean hitzarmena edo akordioa dagoenean.

IX. Tasen kudeaketa

11. artikulua

Ordenantza honek arautzen dituen tasen likidazioari, bilketari eta ikuskapenari dagokien guztian Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorrean ezartzen dena aplikatuko da, eta kasu bakoitzeko zehapena kalifikatzeko ere bai.

X. Azken xedapena

Ordenantza hau eta beraren eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta indarrean egongo dira aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Gaubeako Udalaren haur eskolan ematen diren zerbitzuak (asistentzia eta egotea) arautzen dituen ordenantza

I. Xedapen orokorrak

Ordenantza honek bi xede ditu: Gaubeako Udalaren haur eskolako asistentziarako eta bertan egoteko araudia ezartzea eta eskolaren funtzionamendua arautzea.

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, 20. eta 25. artikuluetan xedatzen duenari jarraituz, Udalak tasak ezartzen eta eskatzen ditu ordenantza honetan arautzen den zerbitzua egiteagatik.

II. Zerga gaia

Zerga gaia Udalaren haur eskolako zerbitzua egitea da, subjektu pasibo bati dagokiola, subjektu pasibo bati eragiten diola edo subjektu pasibo bati onura sortzen diola.

III. Subjektu pasiboa

Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Arabako Lurralde Historikoko zergen Foru Arau Orokorrek 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak, Udalaren haur eskolako zerbitzua eskatzen dutenak.

IV. Zerga oinarria

Zerga oinarria da zerbitzua gauzatzen deneko unitateetako bakoitza, ordenantza honen I. eta II. eranskinetako tarifetan ezartzen denaren arabera.

V. Zerbitzuaren deskripzioa

1. Zerbitzua 4 hilabete eta 3 urte arteko haurrei ematen zaie (2 eta 6 urte artekoen ziklora igaro arte).

2. Eskaintzen den hizkuntza ereduan, haurrei gehienbat euskaraz hitz egin ahalko zaie.

3. Eskolan hamabost haurrentzako lekua dago, gehienez.

VI. Sartzeko baldintzak

a) Nahiko plaza dagoenean:

Zerbitzuaz baliatzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

1. Haurra Gaubean edo udalerrri mugakide batean erroldatuta egon behar da.

2. Eskaera aurkeztu behar da, eta matrikulazio arauetan ezarritako prozedura bete. (VII. idatz zatia)

3. Matrikula ordaindu behar da.

4. Aurreko ikasturteetako zerbitzuaren kuotak ordainduta eduki behar dira.

b) Nahiko plazarik ez dagoenean:

Udalaren haur eskolan behar adina plaza ez badago, haurrak onartzeko irizpide hauek erabiliko dira:

- Familia unitatearen errentak.
- Etxea eskolatik hurbil egotea.
- Beste senide batzuk eskolan matrikulaturik egotea.

Irizpide horiek aplikatuta ateratzen diren puntuazioen arabera hurrenkeran onartuko dira haurrak, honako eskala honetan ezarritakoari jarraituz:

Familia unitateen errentek behetik gorako puntuazioa jasoko dute, hau da, errenta txikienek jasoko dute puntuaziorik handiena.

Etxea eskolatik hurbil egoteagatik puntu hauek emango dira:

Arabako udalerrriak:

Gaubea	5 puntu
Añana	4 puntu
Lantarón	3 puntu

Burgosko udalerrriak:

San Millán de San Zadornileko jurisdikzioa	2 puntu
Berberana	1 puntu

(Oharra: irizpide honen arabera puntuak emateko, kontuan hartu da udalerrietako herriburuen arteko distantzia).

Zentroan matrikulatutako senideen kopuruari dagokionez, puntu bat emango da zentroan matrikulatutako senide bakoitzeko.

VII. Matrikulatzeko prozedura eta epeak

Agiri hauek aurkeztu behar dira haurra matrikulatzeko:

- Inskripzio orria, beteta.
- Familia liburuaren fotokopia.
- Banku entitate bateko kontu baten kopia, ordainketa helbideratzeko.

Matrikularen prezioa dena batera ordainduko da haurraren eskolaldian, kasu honetan izan ezik: oporrez beste etenaldirik ez badago.

Familia ugariak erdia ordainduko dute.

VIII. Zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu beharreko prezioa

1. Gurasoen ordenantza honen eranskinetan azaltzen diren tarifak ordaindu beharko dituzte.
2. Hileko kuota guztiak bankuan helbideratuta ordainduko dira.

3. Matrikula egin eta gero plazaren eskaera bertan behera uzten bada ere, ez da itzuliko matrikularen prezioa.

4. Bi hileko kuota ordaindu gabe utziz gero, besterik gabe haurrari baja emango zaio eskolan. Nolanahi ere, baja berretsi aurretik Udalak interesduna entzungo du.

5. Hileko kuota hurrengo hilean ordainduko da, lehen hamabostaldian.

6. Matrikula lehen hilekoarekin batera zordunduko da.

7. Ordenantza honen eranskinetan dauden tarifak hilekoak dira.

Haurra hilaren lehenengo hamabostaldian sartzten bada eskolan, hileko kuota osoa ordainduko da. Hileko bigarren hamabostaldian sartzten bada, kuota erdia ordainduko da.

IX. Orduetgia

Haur eskolako orduetgia 9:00etatik 17:00ak arte izango da. Gurasoek bi ordu horien arteko denbora tarteak aukeratu ahal dituzte (l. eranskinean zehazten dira). Eskolako programazioaren eta barne antolaketaren ondorioz, umeak beranduenez 10:00etan sar daitezke eskolan, eta 12:00ak baino lehen ezingo izango da haien bila joan.

Arrazoi pedagogikoengatik gomendatzen da umeak ez egotea sei ordu eta erdi baino gehiago jarraian eskolan. Behar bezala justifikatutako eta zentroak aztertutako kasuetan, familiak orduetgia luzatzeko eskatu ahal du. Betiere umeak gehienez 8 ordu egingo ditu zentroan.

Zentroan bazkaltzen duten haurrei, janaria edota biberioiak etxetik ekarri behar zaizkie presatuta. Gurasoek ekarritako janaria emango diete zaintzaileek.

X. Zerbitzua erabiltzeko baldintzak

Egokitze aldia.

Aurreko puntuan aipatutako orduetgiak ez dira aplikatuko irailean, haurrak eskolan hasten diren hilean, alegia.

Hil horretan haurrak eskolara moldatu behar dira, eta horretarako, gurasoek ahal duten neurrian, zentroak familia bakoitzari bere orduetgia ezarriko dio. Apurka-apurka denbora gehiago emango dute eskolan, ohiko orduetgia bete arte.

Hezitzaileek, ikasturte amaierako bileran, hurrengo iraileko orduetgia emango diete gurasoei.

Uztailean haur eskolako hezitzaileak harremanetan jarriko dira familiekin, iraileko "egokitze aldia" zertan den azaltzeko.

Egokitzeko aldi horretan ikastegiak eskatzen du senide edo zaintzailearen bat haur eskolan umearekin egon dadila, familiako bizitzatik eskolako bizitzarako aldaketa errazteko.

Pixkanaka haurrak denbora gehiago emango du eskolan eta senitartekoa denbora gutxiago geratuko da berarekin, haurrak eskolako ohiko orduetgia egin arte.

XI. Eskolako egutegia

Eskolan bertan ikusgai jarriko da eskola egutegia; bertan opor egunak eta oporraldiak agertuko dira, eta asistentzialdiak ere bai, Udalak uztailean onetsiko duen zentroko egutegiaren arabera.

XII. Asistentzia aldia

Arau orokor gisa, uste dugu garrantzitsua dela haurrei ohiko oporraldiak ematea. Beraz, asistentzia zerbitzua erabiliko da baldin eta haurrak etxean gurasoekin edo beste senitarteko batzuekin egoterik ez badago.

Eskola egutegian adierazten diren aldietan, haurrei arreta emango zaie baldin eta haien familiek zerbitzuaren beharra badute eta haurrak ezin zaindu dituztela frogatzen bada.

Aldi horietan eskolaren egitekoa oinarrizko beharrak asetzea izango da eta ez da programazioaren arabera lan egingo, ikasturtean bezala.

Asistentzia zerbitzua egiten duen hezitzaileak, zerbitzu bakoitzaren aurreko lau egunetan, egokitzapena egingo du, zerbitzua erabiliko duten zentroko haurrak ezagutzeko.

Zerbitzu hori erabiltzeagatik gurasoek ordenantza honen I. edo II. eranskineko taulan ezarrita dauden tasak ordainduko dituzte.

Asistentzia aldian eskolara joaten diren hurrek bertan bazkalduko dute, begiraleak lagunduta; gurasoek eramango dute bazkaria.

Asistentzia zerbitzua erabili nahi duten familiek eskaera aurkeztu behar dute udaletxean, asistentzia aldia hasi baino astebete lehenago.

Haur eskolako hezitzaileek emango diete eskaera orria.

XIII. Ordu-tegi osagarria

Ordu-tegi osagarria ezarri da 0-6 urte arteko haurrentzat, eta nahi duten gurasoek erabili ahalko dute. Horretarako, eskolan bertan emango zaien eskaera aurkeztu behar dute.

Ordu-tegi osagarri hori 8:00etatik 10:00ak artekoa izango da goizean eta 14:00etatik 18:00ak artekoa arratsaldean (eskola zabaltzeko ezartzen den orduaren arabera, eta Hezkuntza Ordezkaritzak 2-6 urte arteko etapan klaseak hasteko ezartzen duen ordu-tegiaren arabera).

Zerbitzu hori erabiltzeagatik gurasoek ordenantza honen I. edo II. eranskineko taulan ezarrita dauden tasak ordainduko dituzte.

XIV. Salbuespenak, murrizketak eta hobariak

Ezarritako kuotak ezin ordaindu dituzten familiek Udalari jakinarazi beharko diote, eta eskaera aurkeztu. Eskaera Udaleko oinarrizko gizarte zerbitzuari igorriko zaio, aztertu eta baloratu dezan.

XV. Azken xedapena

Ordenantza hau eta beraren eranskinak ALHAOn argitaratzen diren egunean jarriko dira indarrean, eta indarrean jarraituko dute dira aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

I. eranskina

Nahiko plaza dagoenean

A. Matrikula:

Matrikularen zenbatekoa 85 euro izango da.

B. Hileko tarifak, asistentziaren arabera:

<u>Asistentzia</u>	<u>euro hilean</u>
— 2 eta 3 ordu bitartean	59 euro
— 3 eta 5 ordu bitartean	79 euro
— 5 eta 8 ordu bitartean	97 euro

Bi senide batera joan eta biak lehen zikloan (0-2 urte) badaude, bigarrenak erdia ordainduko du.

C. Asistentzia aldia: eskolak ikasturte bakoitzerako ezartzen duen egutegian agertzen diren asistentziako egunetan eskainiko da: 11 euro egunean.

Bi senide joanez gero, bigarrenak erdia ordainduko du.

D. Ordutegi osagarria: 0-6 urte bitarteko umeentzako ordutegia da.

Ordutegia: 8:00 - 10:00: 3 euro orduko

16:00 - 18:00: 3 euro orduko.

Haurra eskolan ordu erdi bat baino gehiago egoten bada, ordu osoa kobratuko da eta ordu laurden bat baino gehiago egiten badu, berriz, ordu erdia kobratuko da.

Hirigintza arloko lizentziengatik eta jakinarazitako jardunak egiaztatzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituenak, 20. artikuluan eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 207. artikuluan ezartzen dutena betetzeko, udal honek hirigintza arloko lizentziengatik eta jakinarazitako jardunak egiaztatzeagatik ordaindu beharreko tasa ezartzen eta eskatzen du ordenantza honen arabera. Horren eranskinean aplikatu beharreko tarifak azaltzen dira.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Zerga gaia

3. artikulua

Udalak egindako jarduera teknikoa eta administratiboa eta egiaztapenak dira tasa honen zerga gaia, eskatutako hirigintza lizentzia eman behar den zehazteko edo egin nahi den jakinarazitako jarduerak hirigintzako araudian, hirigintzako plangintzan eta udal ordenantzetan ezarritakoa betetzen duen jakiteko. Horretarako, dena den, honako hauek bete behar dira: apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 84. artikuluan ezartzen duena, eta ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 207. artikuluan ezartzen duena.

Ez dute tasa hori ordaindu beharko etxe barruetan egiten diren apaintze, zaintze eta konpontze lanek.

III. Subjektu pasiboa

4. artikulua

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 33. artikuluan aipatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta entitateak tasa honen subjektu pasibo izan daitezke, baldin eta eraikuntzak, instalazioak edo obrak proiektatzen edo egiten diren higiezinaren jabeak edo, zenbait kasutan, errentariak badira.

Betiere, eraikitzaileak eta obren kontratistak zergadunaren ordezkioak izango dira.

5. artikulua

Erantzuleak. Subjektu pasiboaren zerga betebeharrengatik era solidarioan erantzungo dute otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergena, 38. eta 39. artikuluetan aipatzen dituen pertsona fisikoek eta juridikoek.

IV. Zerga oinarria

6. artikulua. Tasaren zerga oinarria da:

a) Obra zibilaren benetako eta egiazko kostua, baldin eta lur mugimenduak, oin berriko obrak eta dagoeneko badauden eraikinen kanpoko itxura edo egitura aldatzeko obrak badira.

b) Eraikina lehenengoz erabiltzen bada edo hari emandako erabilera aldatzen bada, etxebizitza, lokal edo instalazioaren benetako edo egiazko kostua.

c) Hiri lurrak zatitzen direnean edo eraikinak eraisten direnean, ondasun higiezinaren gaineko zergari dagokionez lurrek eta eraikinek duten balioa.

d) Propagandako kartelen azalera, bide publikotik ikusten badira.

2. Aurreko zenbakiko a) eta b) letretan adierazitako kostuan ez da sartu behar makineriaren eta instalazio industrial eta mekanikoen kostua.

V. Kuota

7. artikulua

Zerga kuota zehazteko, zerga oinarriari karga tasak aplikatuko zaizkio ordenantza honen eranskinean ezarritako tarifaren arabera.

Jarduera jakinarazitako jarduera honi lotuta dagoenean, eta ezetza Udalak egiaztapen bisita egin baino lehen ematen bada, zergadunari oso-osorik itzuliko zaio tasaren zenbatekoa. Bestela ez zaio ezer itzuliko.

VI. Sortzapena

8. artikulua

1. Zerga gai den udal jarduera hasten denean sortzen da tasa eta ordaintzeko betebeharra. Hori dela eta, hirigintzako lizentziaren eskaera aurkeztu den egunean joko da hasitzat udal jarduera, subjektu pasiboak lizentzia eskatzen baldin badu.

2. Egoki den lizentzia edo aurretiazko jakinarazpena eduki gabe obrak hasten edo egiten badira, hona noiz sortuko den tasa: udala lanean hasten denean obra horri lizentzia eman ahal zaion ala ez zehazteko. Berdin dio noiz hasten den administrazio espedientearen, halakorik egiten bada obrak baimentzeko edo, baimenik ezin eman bazaie, obretan egindakoa eraitsi dadila agintzeko.

3. Ordaindu beharra sortzen denean, nahitaez ordaindu beharko du aurkeztutako proiektua aldatzeko baldintzak jarri arren edo eskatzaileak lizentzia jaso ostean uko egiten edo ezezkia ematen badio ere. Jakinarazitako jardueretan egiaztapen bisita egin ostean ere ordaindu behar du.

VII. Kudeaketa

9. artikulua. Aitorpena

Obretarako lizentzia lortu nahi duten pertsonak eskabidea aurkeztu behar dute Erregistro Orokorrean, eta elkargo ofizial egokiak ikus-onetsitako ziurtagiria erantsi behar dute. Ziurtagirian zehatz azalduko dira obraren nondik norakoak eta lekua, obraren gutxi gorabeherako zenbatekoa, neurriak eta eraikinaren xedea.

Teknikari eskudunak sinatutako proiektua behar duten obretarako lizentzia edo aurretiazko jakinarazpena eskatzen denean, eskaerarekin batera obren aurrekontua aurkeztuko da. Bertan zehaztasun hauek azalduko dira: obrek ukituko duten eremuaren deskripzioa, sailen kopurua, erabiliko diren materialak eta, oro har, obren ezaugarriak, eta horien kostua egiaztatzen ahal izateko moduko datuak.

Lizentzia edo aurretizko jakinarazpena eskatu eta gero proiektua aldatu edo handitzen bada, udal administrazioari jakinarazi beharko zaio eta agiri hauek aurkeztu beharko zaizkio: aurrekontu berria edo aurrekontu aldatua, eta aldaketaren edo zabalkuntzaren planoak eta memoriak, halakorik egonez gero.

10. artikulua. Likidazioa eta dirua sartzea

Obrak edo egintzak 6. artikuluko 1. zenbakiko a), b) eta d) letretan aipatutakoak direnean:

a) Hirigintzako lizentzia eman eta gero, behin-behineko likidazioa egingo da eskatzaileak aitortutako oinarriaren gainean.

b) Obrak bukatutakoan, udal administrazioak egiaztatuko ahal izango ditu benetako eta egiazko kostua, eta eskatzaileak aitortutako kartelen azalera, eta egiaztapen horren emaitzaren arabera, behin betiko likidazioa egingo du, hala badagokio behin-behinean jasotakoari bidezko kenkaria eginda.

2. Hiri lurraz zatitzen direnean edo eraikinak eraisten direnean, lizentzia eman ondoren zerga oinarriaren gainean egiten den likidazioa behin betikoa izango da, salbu eta ondasun higiezinaren gaineko zergarako ezarritako balioa behin betikoa ez denean.

3. Egiten diren likidazio guztiak zergadunaren ordezkari den subjektu pasiboari jakinaraziko zaizkio, zuzenean udal diru kutxan sar ditzan, dirubilketa arautegi orokorrak zehazten dituen ordainbideak erabilita eta epeak kontuan hartuta.

4. Sortutako kuotak Udal Diruzaintzan ordainduko dira.

Ordenantza honetan ezarritako salbuespen, hobari edo murrizketak lortu nahi dituztenek udal administrazioari eskatu behar dizkiote, eta behar bezala frogatu behar dituzte horiek lortzeko eskubidea ematen dieten inguruabarrak.

Lizentzia eman aurretik, udal administrazioak zuzeneko sarreraren bidezko behin-behineko likidazioa egingo du, interesdunei jakinaraziko die eta ordaintzeko epeen eta errekurtsioen berri emango die, indarra duen legeriarekin bat.

Udal administrazioak behin-behineko likidazioa behin betikoa bihurtuko du, ikuskapen zerbitzuek hura egiaztatu eta gero.

VIII. Arau haustek eta zehapenak

11. artikulua

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 77. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen duenari jarraituko zaio zergei buruzko arau hausteei dagokien guztian, bai eta arau hauste bakoitzari dagokion zehapenen kasuan ere.

Xedapen gehigarria

Arrazoi sistematikoak direla medio indarreko legeriaren eta hura garatzeko arauen alderdi batzuk hartzen dituzten zerga ordenantza honen aginduak eta ordenantza honetakoak jasotzen dituztenak, automatikoki aldatu edota ordezkari diren, dagozkien lege aginduak eta arauak aldatzen diren unean.

Azken xedapena

Zerga ordenantza hau apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan ezartzen duenaren arabera jarriko da indarrean, eta berariaz aldatu edo indargabetu arte egongo da indarrean.

Eranskina

Tarifak

- A) Hirigintzako lizentzia izapidetzeagatik ordaindu beharreko tasak: kuota bakarra, 12 euro.
- B) Lehen erabilerako lizentzia: kuota eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren kuota-ren ehuneko 10 izango da, baina aurrekontua berrikusi ahal da egindako obra ikusten denean.
- C) Urbanizatzeko obrak: obrak egiteko aurrekontua oinarri hartuta, ehuneko 3ko tarifa aplikatuko da 60.101,21 eurora arte, eta ehuneko 2koa gainerakoagatik.
- D) Lurzatikatzak eta finken banantzeak eta taldekatzeak: 1.000 metro koadro edo gutxiago: 0,01 euro metro koadroko.
- E) Lerrokadurak eta sestrak seinalatzea:
Lerrokadurak seinalatzea leku finkatuetan, topografiako tresnen beharrik ez dagoenean. Saio bakoitza: 18,03 euro.
Lerrokadurak seinalatzea leku finkatuetan, topografiako tresnak behar direnean. Saio bakoitza: 30,05 euro.
- F) Lokalak eta eraikinak ikuskatzea: eskatzaileak proposatuta eta inork salaketarik jarri gabe: 30,05 euro.
- G) Ziurtagiriak eta txostenak egitea: 3,01 euro.

Gaubeako leku turistiko interesgarriak gidarekin bisitatzegatik ordaindu beharreko prezio publikoa arautzen duen zerga ordenantza**1. artikulua. Kontzeptua, oinarria eta izaera**

Apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 106. artikuluan emandako ahalmenak erabiliz, eta bat etorritik martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateratua onartzen duenak. 41. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen duenarekin eta uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 43. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen duenarekin, Gaubeako Udalak prezio publiko bat ezartzen du udalerriko leku turistiko interesgarriak gidariarekin bisitatzegatik, eskaintzen den kultur jardueraren kontraprestazio gisa. Prezio publikoa ordenantza honen arabera eskatuko da.

2. artikulua. Ordaindu behar dutenak

Prezio publiko hau ordaindu behar dute honako hauek gidariarekin bisitatzeko dituztenek:

Gaubeako leku interesgarriak: Jasokundeko Ama Birjinaren eliza (Tuesta), San Romanen eliza (Tobillas), San Martinen eliza (Bachicabo), Angostoko monasterioaren multzoa, Corroko koba eremitikoak, eta bisitariak eskatzen duten beste edozein.

3. artikulua. Zenbatekoa

Leku turistiko interesgarri bakoitza gidariarekin bisitatzegatik bi euroko prezio publikoa (2,00 euro) ordaindu behar da.

Prezio horretan, 10 bisitariko taldea eratu behar da gutxienez. Bisitari kopuru horretara heldu ezean, gutxieneko talde prezioa ordaindu behar da: 20 euro.

4. artikulua. Salbuespenak

Pertsona batzuek ez dute ordaindu behar ordenantza honek arautzen duen prezio publikoa: 3 urtetik beherakoek.

Bisitariet laguntzen dieten begiraleek eta gidariek.

5. artikulua. Doaneko bisitak herritar guztientzat

Noizean behin turismo bulegoak promozio bisitak antolatzen ditu.

6. artikulua. Administrazioa eta kobrantza

Ordenantza honek arautzen duen prezio publikoaren administrazioa eta kobrantza Gaubeako Udalaren Turismo Patronatuaren kudeaketa lanen esleipena jasotzen duen enpresaren ardura izango dira, ezertan ere eragotzi gabe Gaubeako Udalari ekonomia eta aurrekontu gaitan dagozkion eskumenak.

7. artikulua. Prezio publikoa eskatzea

Prezio publikoa kultura jarduera hasten denean eskatuko da, hau da, bisita hasten denean; hala ere, bisita txartela aurretik salduz gero, zenbateko osoa aurreratu beharko da.

8. artikulua. Ordaintzea

Prezio publikoa jarduera egin aurretik ordaindu behar da.

9. artikulua. Itzulketak

Prezio publikoa ordaindu behar duen pertsonari egotzi ezin zaion arrazoi batengatik bisita ezin bada egin, ordaindutako kopurua itzuliko zaio.

Azken xedapena. Indarrean jartzea

Ordenantza hau ALHAOn osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean egongo da harik eta aldatzea edo indargabetzea berariaz erabaki arte.

Auzo suteak egiteko baso produktuak aprobetxatzeagatik ordaindu beharreko tasa arautzen duen zerga ordenantza indargabetzen da.

Gaubea, 2018ko urtarrilaren 2a

Alkate-udalburua

JUAN CARLOS RAMIREZ-ESCUDERO ISUSI